

LANGILERIAREN BATEZBESTEKOAREN KALKULUA ETA %2-AREN ERRESERBA-KUOTARENA. HAUTAZKO NEURRIAK.

1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koa, **desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina** onartzen duena, bere 42. artikuluan ezartzen du 50 langile edo gehiago dituzten enpresen betebeharra desgaitasunen bat duten langileen aldeko %2-ko erreserba-kuotarekin. Artikulu berean ezartzen da ere kopuru hori dena delako enpresa horretako langileen **plantilla osoari buruz** ezarrita dagoela, **edozein** dela ere enpresa horrek dituen **lantegien kopurua** eta edozein dela ere enpresako langile horien **lan-kontratazioaren mota**.

Desgaitasunen bat duten langileen aldeko erreserba-kuota langileriaren batezbestekoaren arabera ezartzen da, premisa batzuk aplikatuz kalkulatu behar dena, apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuaren lehenengo Xedapen Gehigarrian zehaztuak daudenak: (Dekretu horretan, desgaitasunen bat duten langileen aldeko erreserba-kuotaren aparteko izaera duen hautazko betetzea arautzen da)

- Erreferentzia-epea aurre-aurreko 12 hilabeteak izango dira, non langileen batezbestekoa lortuko den, lanaldi partzialarekin kontratatutak barneratuz ere, enpresaren enplegu-zentro guztietan.
- Urte batetik goragoko aldi baterako kontratuaz lotutako langileak, langile finko bezala zenbatuko dira.
- Urte bat arte kontratatutako langileak erreferentzia-epean lan egindako egun kopuruaren arabera zenbatuko dira. Lan egindako 200 egun edo zatiki bakoitzeko, langile bat gehiago bezala zenbatuko da. Erreferentzia-epean lan egindako egun-kopurua zati 200 egin ondoren lortutako zatidurak, zenbatzen ari garen langileen benetako kopurua gaindituz gero, gehienez aipatutako langileen totala kontuan hartuko da.

Erreferentzia-epean lan egindako 200 egunak zenbatzerako orduan, asteko atsedenaldua, jaiegunak eta oporraldiak ere barneratuko dira.

Langileriaren batezbestekoa lortzeko, beraz, aurre-aurreko 12 hilabeteak eta enpresaren enplegu-zentro guztiak kontuan hartuko dira; batezbestekoa honako prozedura jarraituz lortzen da:

1. Finkoak diren langileen kasuan eta urte batetik goragoko aldi baterako kontratua daukaten langileen kasuan, nahiz eta azken hauek zenbaketa momentuan zerbitzuak jadanik ez presta, kalkulua egingo da honakoa kontuan harturik:

Langile finkoen eta urte batetik goragoko aldi baterako kontratua daukaten langileen kopurua kontatuko da hilez-hil (nahiz eta lan egin ez duten egunak egon); pertsona bakoitza bat bezala zenbatuko da, kontratatuta egon den hil (edo egun) bakoitzean; lortutako guztira zati 12 egingo da. (Edo bestela egun naturalak kontatuko dira eta azkenik lortutako guztira zati 365 egingo da). Emaizta, "A" atalean ipiniko da.

2. Urte batetik beheragoko aldi baterako kontratua daukaten langileen kasuan, hauek aurre-aurreko 12hilabeteetan lan egindako egunen kopurua zenbatuko da, asteko atsedenaldea, jaiegunak eta oporraldiak barne, eta emaitza zati 200 egingo da (datu hau "B" atalean ipiniko da; dezimalak atera ezkerro, gorantz biribilduta lortzen den zenbaki osoa hartuko da). Zatiketa honen emaitzak urte batetik beheragoko aldi baterako kontratua daukaten langileen benetako kopurua gaindituz gero, izanik "B1", batezbestekoan "B1" batuko da. Osterantzean, batezbestekoan, "B" batuko da.

3. Zenbaketa modu berdinean burutzen da 1 eta 2 ataletan, bai kontratuak lanaldi osokoak izan, bai lanaldi partzialekoak izan

A.

B. _____ egunak / 200 =

(Eragiketa honen emaitzan dezimalak atera ezkerro, gorantz biribilduta lortzen den zenbaki osoa hartu beharko da. Adibidez: 30,35 ateratzen bada, 31ra biribiltzen da)

BATEZBESTE: A +(B edo B1) = _____ + _____ =

%2aren aplikazioak, desgaitasunen bat duten langileen aldeko erreserba-kuota, enpresako langileriaren BATEZBESTEKOARI, zehazten du enpresak kontratatuta eduki behar dituen desgaitasunen bat duten pertsonen kopurua, bere legezko betebeharra betetzeko. Portzentajea batezbestekoari aplikatu ondoren lortzen den zenbakiak dezimalak baditu, beherantz biribilduta lortzen den zenbaki osoa hartu beharko da. Adibidez, 5,75 lortzen bada, 5-era biribiltzen da.

Gerta liteke enpresak ez betetzea, guztiz edo partzialki, kontratazio betebeharrarekin, 364/2005 Errege Dekretuko 1. artikuluan ezarritako arrazoiengatik. Kasu hauetan, enpresak egin beharko du

eskaera desgaitasunen bat duten langileentzat erreserba-kuota ez betetzeagatiko salbuespen-adierazpena jasotzeko eta ordezeko neurriak hartzeko. Salbuespen-eskaera hori gauzatu beharko da hautazko neurrien zinezko aplikazioaren aurretik.

Erreserba-kuota betetzeko hautazko neurriak honakoak izan daitezke:

(OHAR: IPREM 2021 12 ordainsarira indarrean sartze-data: 2021/01/01; abenduaren 30eko 11/2020 Legea)

- Enplegu Zentro Berezi batekin edo desgaitasunen bat duen langile autonomo batekin merkataritza edo **KONTRATU** zibila, **lehengaiak, makineria, ekipo-ondasunak edo bestelako hornidurarako, edota enpresaren ohiko jardueraren osagarriak diren kanpoko zerbitzuak** emateko.

Kopurua: 3 aldiz URTEKO IPREM indizearen zenbatekoa (IPREM 2021 12 ordainsarira = 6.788,8 euro), kontratatu ez den desgaitasunen bat duen pertsona bakoitzeko.

Guztira: 20.336,4 euro, kontratatu ez den desgaitasunen bat duen pertsona bakoitzeko.

- **DIRU-DOHAINTZA ETA BABES-EKINTZAK**, laneratze-jarduerak garatzeko, fundazio edo herri onurako elkarteei, beste batzuen artean, honako helburu sozialak dituztenak: lanprestakuntza, laneratzea edo enpleguaren sorkuntza, desgaitasunen bat duten pertsonen alde. ^º

Kopurua: 1,5 aldiz URTEKO IPREM indizearen zenbatekoa (IPREM 2021 12 ordainsarira 6.788,8 euro), kontratatu ez den desgaitasunen bat duen pertsona bakoitzeko.

Guztira: **10.168,2 euro**, kontratatu ez den desgaitasunen bat duen pertsona bakoitzeko.

- Aurretik dagokion kontratua Enplegu Zentro Berezi batekin izenpetu ondoren, **honekin LAN-ENKLABE bat** sortzea.

Kopurua: 3 aldiz URTEKO IPREM indizearen zenbatekoa (IPREM 2021 12 ordainsarira = 6.788,8 euro), kontratatu ez den desgaitasunen bat duen pertsona bakoitzeko.

Guztira: **20.336,4 euro**, kontratatu ez den desgaitasunen bat duen pertsona bakoitzeko., kontratatu ez den desgaitasunen bat duen pertsona bakoitzeko.

Hautazko neurrien zenbatekoa zehazteko, **%2-ko portzentajea** enpresaren langileriaren batezbestekoari **aplikatu** ondoren lortzen den **zenbakiak dezimalak baditu, beherantz biribilduta lortzen den zenbaki osoa hartu beharko da:**

| | | | |
|---|---|---|--|
| Adibideak: Batezbesteko langileria: | 96 | 65 | 215 |
| %2-aren aplikazioa: | 1,92 | 1,30 | 4,3 |
| Aplikatu beharreko hautazko neurriak: | kalkulatuko dira kontratatzeari utzitako langile 1-en ordezpenean | kalkulatuko dira kontratatzeari utzitako langile 1-en ordezpenean | kalkulatuko dira kontratatzeari utzitako langile 1-en ordezpenean (*) |

(*) Enpresak desgaitasunen bat duen pertsonarik kontratatuta ez duenean.